Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia

Centro superior de música del País Vasco

musikene

## 1. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK

MUSIKENE Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegiko Fundazio Pribatua 2001eko ekainaren 7an eratu zen, Donostia-San Sebastianen du helbide soziala, eta Euskal Herrian lan egiten du. Haren helburu soziala eta jarduera nagusia da musikako goi-mailako irakaskuntzarekin eta Euskal Herriko Musikako Goi-mailako Ikastegiarekin zerikusia duten ekimen eta ekintzak kudeatu eta kudeatzea, eta horiei eustea. Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzen bidez finantzatzen da batez ere fundazioa; era beran, Euskal Herriko Musikako Goi-mailako Ikastegian izena ematen duten ikasleek ordaintzen dituzten eskubideek eta zuzenbidean balioa duen beste edozein ekarpenek ere finantzatzen dute. Patronatua, berriz, fundazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkapen organoa da.

Fundazio-zuzkidura horrela banatzen da:

## 1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

La Fundación Privada para el Centro Superior de Musika del País Vasco MUSIKENE tiene su domicilio social en Donostia-San Sebastián y desarrolla sus actividades en el País Vasco, se constituyó el 7 de junio del 2001. Su objeto social y actividad principal es la gestión, promoción y soporte, sin afán de lucro, de iniciativas y actividades relacionadas con la enseñanza de la música de grado superior y con el Centro Superior de Música del País Vasco. La fundación se financia, principalmente a través de las subvenciones que recibe del Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza, así como de los derechos que abonan los alumnos matriculados en el Centro Superior de Música del País Vasco y por cualquier aportación válida en derecho. El Patronato es el órgano de gobierno, administración y representación de la Fundación.

La dotación fundacional se distribuye de la forma siguiente:

| PARTAIDETZA<br>PARTICIPACIÓN | % |
|---|---|
| EAEko Administrazioa<br>Administración CAE | 100 |
| GUZTIRA<br>TOTAL | 100 |

## 2. 2017AN BURUTUTAKO EGITE NAGUSIAK

## 2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2017

| HELBURUA<br>EKINTZA<br>ADIERAZLEA | MAGNITUDEA<br>MAGNITUD | OBJETIVO<br>ACCION<br>INDICADOR |
|---|---|---|
| 31 espezialitate irakasten dira: akordeoia, harpa, kantua, klarinetea, konposizioa, zuzendaritza, fagota, txirula, gitarra, baxu elektrikoa jazz, bateria jazz, kantua jazz, kontrabaxua jazz, gitarra jazz, pianoa jazz, saxofoia jazz, tronboia jazz, tronpeta jazz, oboea, organoa, pedagogia, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpa, tronpeta, tuba, biola, biolin eta biolontxeloa.<br>Musikeneko taldeek, Ikasketa Plan baten barruan berez duten jarduera akademikoaz gain, eta Ikasketa Plan baten parte diren heinean, bestelako kanpo-jarduerak ere egiten dituzte, hain zuzen ere ikastegitik kanpoko kontzertu publikoak. | | Se imparten 31 especialidades: Acordeón, Arpa, Canto, Clarinete, Composición, Dirección, Fagot, Flauta, Guitarra, Jazz Bajo eléctrico, Jazz Batería, Jazz Canto, Jazz contrabajo, Jazz Guitarra, Jazz Piano, Jazz Saxofón, Jazz Trombón, Jazz Trompeta, Oboe, Órgano, Pedagogía, Percusión, Piano, Saxofón, Trombón, Trompa, Trompeta, Tuba, Viola, Violín y Violoncello.<br>Las diferentes agrupaciones de Musikene además de la dinámica académica que les es propia, y en la medida en que forman parte de un Plan de Estudios, realizan una serie de actividades externas en forma de conciertos públicos en locales ajenos a las propias |

| HELBURUA<br>EKINTZA<br>ADIERAZLEA | MAGNITUDEA<br>MAGNITUD | OBJETIVO<br>ACCION<br>INDICADOR |
|---|---|---|
| | | instalaciones del centro. |
| **2016-2017 IKASTURTEA (2017eko urtarrila-ekaina).** | | **CURSO 2016-2017 (enero-junio 2017).** |
| 2016-2017 ikasturtean 320 ikaslek egin dute matrikula, Erasmus egitasmoko ikasleak barne. | | En el curso 2016-2017 se han matriculado 320 alumnos/as incluidos los alumnos del programa Erasmus. |
| Espezialitateko 9.489 ordu irakatsi dira eta espezialitatekoak ez direnak berriz 21.205. | | Se han impartido 9.489 horas de especialidad y 21.205 horas de no especialidad. |
| Denboraldi horretan honako ekitaldiak egin dira: | | Se han realizado los siguientes eventos durante este período: |
| • Talde handien sei kontzertu orkestra, banda eta sinfonietta. | | • Seis conciertos de grandes agrupaciones: orquesta, banda y sinfonietta. |
| • Berrogeita zazpi ikasle aritu dira Bilbo Orkestra Sinfonikoarekin elkarlanean hainbat kontzertutan. | | • Cuarenta y siete alumnos/as colaboraron con la Orquesta Sinfónica de Bilbao en varios conciertos. |
| • Hogeita bat ikasle aritu dira elkarlanean Euskadiko Orkestra sinfonikoarekin kontzertu batean. | | • Veintiún alumnos/as colaboraron con la Orquesta de Euskadi en un concierto. |
| • Hogeita bi ikasle aritu dira elkarlanean Bilboko Bandarekin | | • Veintidós alumnos/as colaboraron con la Banda de Bilbao en un concierto. |
| • Jazzaldian, ikaslez osatutako hiru talde eta irakaslez osatutako lau talde. | | • Tres grupos de alumnado en el Jazzaldi y cuatros de profesorado. |
| • Donostiako Musika Hamabostaldian sei talde | | • Seis grupos en la Quincena Musical de San Sebastián. |
| • Ganbera-musikla zikloetan ganbera talde ezberdinak aritu dira. | | • Agrupaciones camerísticas diversas en ciclos de música de cámara. |
| **2017-2018 IKASTURTEA ( 2017eko iraila-abendua)** | | **CURSO 2017-2018 (septiembre-diciembre 2017)** |
| 320 ikaslek egingo dutela matrikula aurreikusten da. | | Esta prevista la matriculación de 320 alumnos. |
| Espezialitateko 4.745 bat ordu irakatsiko dira, eta beste 10.602 espezialitatekoak ez direnak. | | Se van a impartir unas 4.745 horas de especialidad y 10.602 horas de no especialidad. |
| Irakasle kopuruan bat gutxiago izango da. 5 irakasle baja izan dira eta 4 lanean hasiko dira (eszedentzia amaiera, baja izan diren irakasleen lekua betetzeko deialdi publiko bidez hornitu direnak) | | Se ha reducido en uno el número de docentes, ha habido 5 bajas y 4 altas de profesores (fin de excedencias, convocatorias públicas para sustituir a profesores que han causado baja). |
| Gradu ondoko ikastaroak emango dira, 28 ikasle matrikulatuta eta 13 irailean izena emanda daudelarik. | | Se van a impartir cursos de postgrado para los que hay matriculados 28 alumnos y 13 inscritos en septiembre. |
| Urrian Orkestra Praktika Masterra abian jarriko da. 14 ikasle matrikulatu dira eta beste 13k izena eman dute sarrera probak egiteko. | | En octubre dará comienzo el Master de Práctica Orquestal para el que se han matriculado 14 alumnos y se han inscrito otros 13 que aún tienen que realizar las pruebas de acceso. |
| Guztira lau kontzertu programatu dira: bat orkestrarekin bat bandarekin, bat sinfonietta, eta beste bat big bandarekin. | | Están programados en total cuatro conciertos: uno de la orquesta, uno de la banda, uno sinfonietta y uno de la big band. |

## 3. 2018RAKO HELBURU OROKORRAK ETA BERAUEN ZENBATEKOA

## 3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2018 Y SU CUANTIFICACIÓN

| HELBURUA<br>EKINTZA<br>ADIERAZLEA | MAGNITUDEA<br>MAGNITUD | OBJETIVO<br>ACCION<br>INDICADOR |
|---|---|---|
| **1. Musikako goi-mailako ikasketak eskaintzea.** | | **1. Ofertar estudios de Enseñanza Musical de Grado Superior.** |
| 2017-2018 ikasturtea (urtarriletik ekainera): | | Curso 2017-2018 (enero a junio): |
| 1. Matrikulatutako ikasleen kop. | **320** | 1. N. de alumnos matriculados. |
| 2. Irakasleak. | **167** | 2. N. de profesores. |
| 3. Irakastorduak. | **30.694** | 3. N. de horas lectivas. |
| 4. Orkestren ekitaldiak. | **7** | 4. N. de actividades orquestales. |
| 2017-2018 ikasturtea (irailetik abendura): | | Curso 2017-2018 (septiembre a diciembre): |
| 1. Matrikulatutako ikasleen kop. | **320** | 1. N. de alumnos matriculados. |
| 2. Irakasleak. | **167** | 2. N. de profesores. |
| 3. Irakastorduak. | **15.347** | 3. N. de horas lectivas. |
| 4. Orkestren ekitaldiak. | **4** | 4. N. de actividades orquestales. |